

Donostia, 2020ko otsailaren 21a

UDALBATZAKO IDAZKARI NAGUSIARI

HIRIKO TRAFIKOAREN EGOERARI BURUZKO KONTROL MOZIOA

Elkarrekin Donostia udal talde politikoko Aitzole Araneta bozeramaileak, Udaltzaren Araudi Organikoaren 98. artikularekin bat etorruta, HIRIKO TRAFIKOAREN EGOERARI buruzko honako KONTROL MOZIO hau aurkezten du OSOKO BILKURAN eztabaidatua izan dadin.

JUSTIFIKAZIOA

Otsailaren 3an, astelehenarekin, kutsadura atmosferikoaren baimendutako mugak gainditu ziren Donostian, egun osoan. 2017. urtean, baimendutako kutsadura mugak 8 egunez gainditu ziren, eta 2019an, berriz, 32 egunez.

Egoera hori egun horretako ezohiko eguraldiak, batik bat, eragin zuen, baina, etorkizunera begira, hainbat faktore kontuan izan behar dira. Alde batetik, klima aldaketaren ondorioak direla eta, urte sasoi honetan ezohikoa den eguraldia duten egunen kopurua litekeena da gero eta handiagoa izatea. Beste alde batetik, jarduera ekonomikoaren susperraldiak, batik bat, eraginda, ibilgailu pribatua gero eta gehiago erabiltzen ari da, urtetik urtera, hirian. Eta, azkenik, hirira etortzen diren turisten % 65, gutxi gorabehera, autoz iristen direla nabarmendu behar da; beraz, hirira turista gehiago erakartzera bideratutako politikek hirian auto gehiago egotea eragingo dute, ezinbestean.

Egoera horretaz gain, San Martin kalea itxita egongo da metroaren obrak inguru horretan egiten ari diren bitartean, gutxienez. Erdialdera iristeko ibilbideak aldatu direnez, litekeena da ibilbide horietan trafikoaren bolumena gehiegizkoa izatea, hiriak berak duen ahalmenarako ere, eta herritarrentzat, oro har, kalteak eta eragozpenak sortzea. Hortaz, ezinbestekotzat jotzen da trafikoa, oro har, murrizteko eta ibilgailu pribatua hirian gutxiago erabiltzeko neurriak hartzea.

Batzordean, zinegotzi ordezkariak azaldu zuen bat datorrela hirian ibilgailuen kopurua murrizteko premiarekin eta, adierazi zuenez, epe luzera aztertu beharreko arazoa denez eta hiria, oro har, birpentsatu behar denez, Gobernuak itxaron egin nahi zuen Topoaren Donostiako lanak bukatu arte, trafikoa murrizteko politikak aplikatzen hasteko. Alabaina, Topoaren ibilbide berriari dagokionez, positiboa izan daiteke hainbat gune hiriarekin lotzeko konexioak hobetzeari begira, baina ez da konponbidea izango, inolaz ere, une honetan ibilgailu pribatuan egiten diren joan-etorri askoren kasuan. Horregatik, Elkarrekin Donostiako kideon ustez trafikoa murrizteko politikak lehenbailehen pentsatzen eta ezartzen hasi behar da.

Hori guztia dela eta, honako hau proposatzen da:

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio hirian ibilgailu pribatu gutxiago izateko plana egin dezala.
2. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio hainbat neurri abiaraz ditzala Donostiara autoz iristen diren turistek autoa hiriaren erdigunera ez sartzeko aukerak izan ditzaten.
3. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio Dbus finantzatzeko neurri osagarriak azter ditzala, hala nola TAO sistemarekin edo trafikoko isunekin bildutako diruaren zati bat Donostiako tranbia konpainia finantzatzera zuzenean bideratzea.

Sin.: Aitzole Araneta

Elkarrekin Donostia Udal Taldeko bozeramailea